

2010-10-27ko EZOHIKO UDALBATZA

Iruran, bi mila eta hamargarren urteko urriaren hogeita zazpian, arratsaldeko 20:00etan, udaletxeko udalbatza-aretoan, ezohiko batzarra egin du Udalbatzak, Marimi Ugalde Zabala alkatea buru duela.

Zinegotzi hauek izan dira bileran: Eugenio Loidi jauna, Jose Luis Olano Zubeldia jauna, Gregorio Lasa Etxezarreta jauna, eta Agustin Zubeldia Iraola jauna.

Ez da etorri eta ezin etorria adierazi du:Aitor Lasa Olalde jaunak.

Udaleko idazkariak, Miguel Antonio Arrizabalaga Brusin jaunak, egin ditu idazkari-lanak.

Alkateak irekitzat jo du saio publikoa; segituan, eta haren baimenarekin, idazkariak jakinarazi du bilera egitea bazegoela, Toki Erregimeneko Oinarriak Arazten dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeak eta 2568/1986 Errege Dekretuak, azaroaren 28koak, Toki Erakundeen Antolakuntza, Funtzionamendu eta Eraentza Juridikoaren Erregelamendua onartzen dituenak, agindutako gutxieneko partaide-kopurua bertaratu baita.

LEHENBIZIKO GAIA

IRURAKO HIRI ANTOLAMENDUKO PLAN OROKORRAREN HASIERAKO ONARPENA, HALA BADAGOKIO.

Akordio Proposamen honen berri eman da:

“2009ko azaroaren 17ko Udalbatzan akordioa egin ostean, Irurako Udalak adostu du espedientea irekitzea, Irurako Arau Subsidiarioen Berrikuspena Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2996 Legeari egokitzeko, eta, horretarako, Irurako Hiri Antolakuntzarako Plan Orokorra idatziko da, Bigarren Xedapen Iragankorrean ezarritakoari jarraiki.

Era berean, adostu da Aurrerapena alde batera uztea.

Halaber, ingurumen inpaktuari buruzko aurre txostena jaso dugu, Gipuzkoako Foru Aldundiak igorritakoa.

Bestalde, proposamena bidali zaie Anoeta, Tolosa eta Billabona udal mugakideei, eta ez dugu alegaziorik jaso.

Kontuan izanik Iñaki Echeverría arkitektoak Plana idatzi duela.

Idazkari-kontu hartzailearen txostena ikusita.

Hirigintza legedian ezarritakoaren arabera, proposatu da onartzea honako

AKORDIO HAU:

Lehena.- Udalak idatzi duen Irurako Hiri Antolamendurako Plan Orokorra hasiera batean onartzea.

Bigarrena.- Espedientea hilabetez jendaurrean jartzea, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta probintziako egunkari hedatuenetan iragarkia argitaratuz, eta epea azken argitalpenetik aurrera hasiko da.

Epe horretan zehar, dokumentazioa eskuragarri egongo da, aztertu nahi duten guztientzat, eta dagozkion alegazioak egin ahal izango dira.

Era berean, Udalbatza horretan onartutako herritarren partaidetza-programa martxan jarriko da.

Hirugarrena.- Gipuzkoako Foru Aldundiari eta Administrazio Hidraulikoari errepideei buruzko txostenak eskatzea, ur-baliabideei dagokienez, eta baita hala dagozkion bestelako txostenak ere.”

Hori ikusita, Udalak aho batez adostu du onartzea, Udalbatzako kideen erabateko gehiengo legalaren aldeko botoekin, Tokiko Erregimenaren Oinarriei buruzko apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 47.3. artikulua (II) atalean ezarritakoaren arabera.

Akordio hori izapidea da. Ezin da honen kontrako errekurtsorik jarri, nahiz eta interesdunek egoki deritzen errekurtsioak jar ditzaketen.

BIGARREN GAIA

ZABALGUNEKO LUR JABEEKIN HIRIGINTZA HITZARMENA ONARTZEA, HALA BADAGOKIO.

Irurako Arau Subsidiarioen Berrikuspenaren eta Irurako Hiri Antolamendurako Plan Orokorren 9. Sektorea Zabalguneren jabeekin 2010eko urriaren 14an sinatutako hitzarmenaren berri eman da, 2006 ekainaren 20an sinatutako Hirigintza hitzarmenaren lortutako akordioak berresten dituen, eta aipatutako Plan Orokorra izapidetu eta onartzean dagozkion ondorioak izan ditzan.

Dagozkion txostenak ikusita.

Hori dela eta, Udalbatzak aho batez honako hau onartu du:

Lehena.- Aipatutako Hitzarmena hasiera batean onartzea.

Bigarrena.- Espedientea jendaurrean jartzea 20 egun baliodunez, testu osoa Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuz. Epe horretan zehar, espedientea aztertu ahal izango da eta dagozkion alegazioak aurkeztu.

Hirugarrena.- Alegaziorik balego, Udalbatzak ebatziko du. Bestela, behin betiko onartu dela iritziko zaio.

Erabaki hau behin betikoa da eta administrazioko bidea agortzen du. Beraren aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsoa ipini daiteke Donostiako Administrazioarekiko Auzien Epaitegian.

Aurreko puntua amaitzerakoan, Gregorio Lasa zinegotziak saioa utzi du.

HIRUGARREN GAIA

**“SAN MIGEL PLAZAREN ZATI BATEKO BERRITZE LANAK”
OBRAREN ALDAKETA ETA BERE OBRAREN ZIURTAGIRIAREN BEHIN
BETIKO ONARPENA, HALA BADAGOKIO.**

2010eko maiatzaren 3ko 49/2010 Alkatetza Dekretu bidez, Excavaciones Fresneda S.L. enpresari behin betiko esleitu zitzaion “Irurako San Miguel Plazaren Birgaikuntza Partziala”, 94.127,42 euro gehi 15.060,39 euroko zenbatekoan, 109.187,81 euro guztira.

Proiektua egikaritzean, obretan aldaketak egon dira, eta, hortaz, 8.655,14 euro gehiago gastatu dira (BEZ barne).

Era berean, obrako zuzendaritzak obraren amaierako ziurtagiria aurkeztu du, 117.842,95 euroko zenbatekoan (BEZ barne).

Hortaz, eta dagokion espedientea ikusita, Udalbatzak aho batez honako hau onartu du:

Lehena.- aipatutako obraren 1. aldaketa espedientea onartzea, gastuak 8.655,14 euro igotzen dituen.

Era berean, dagokion gastua onartzea.

Bigarrena.- Aipatutako obraren amaierako ziurtagiria onartzea.

Erabaki hau behin betikoa da eta administrazioko bidea agortzen du. Beraren aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsoa ipini daiteke Donostiako Administrazioarekiko Auzien Epaitegian.

LAUGARREN GAIA

**LARRITURRI EREMUKO XEHETASUN AZTERKETAREN BEHIN
BETIKO ONARPENA, HALA BADAGOKIO.**

2010eko uztailaren 29ko 83/2010 Alkatetza Dekretu bidez, Jauregui-Berri lursailaren Xehetasun Azterketa hasiera batean onartzea adostu da. Jauregui-Berri lursaila 10. Eremua-Larriturri-ko A1-10-1 guneari dagokio, eta Iturbe familiak sustatzen du.

Era berean, jendaurrean jarri da eta jabe mugakideei pertsonalki jakinarazi

zaie. Honako hauek alegazioak aurkeztu dituzte:

-Joxi Balerdi jaunak.

-Izaskun Luluaga andreak.

-Iñaki Etxebarria jaunak eta Silvia Alonso andreak, Zilar kaleko 9. zenbakiko jabe-erkidegoaren izenean.

Dagozkion txostenak ikusita.

Indarrean dagoen hirigintza legedian ezarritakoari jarraiki.

Hori dela eta, Udalbatzak aho batez honako hau onartu du:

Lehen.- Aurkeztutako alegazioak atzera botatzea eta alegatzaileei udal arkitekto-aholkulariaren txostena bidaltzea.

Bigarrena.- Xehetasun Azterketa behin betiko onartzea, baldintza hauekin:

“a) Eraikuntza proiektuak idazterakoan, kontuan hartuko da I. Echeverría arkitektoak 2010-01-08ko txostenean adierazitakoa.

b) Zuzkidura publikoetarako proposatu diren lagapenak onartzen dira (bideak, espaloiak...), 239,31 m²-ko azalera guztira. Lagapen horiek eskritura publiko bidez egin behar dira, eta eraikuntzen obra berriaren adierazpen-eskrituran gauzatu daitezke.

c) Bataz besteko hirigintza-eraikigarritasunaren %15aren doan laga ordez, 77.378,35 euro ordainduko dira esku dirutan, aipatutako 2/2006 Legearen 27.5. artikuluan ezarritakoaren eta dagokion txosten teknikoaren arabera, eta eraikuntza lizentziak ematerakoan ordaindu beharko da.

d) Urbanizaziori dagokionez, urbanizazio obra gehigarrien proiektua eraikuntza-proiektuen eranskin gisa aurkeztuko da, eta dagokion lizentziaren bidez baimenduko da.”

Hirugarrena.- Xehetasun Azterketa behin betiko onartu dela Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea, eta alegatzaile eta interesdunei pertsonalki jakinaraztea.

Erabaki hau behin betikoa da eta administrazioko bidea agortzen du. Beraren aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsoa ipini daiteke Donostiako Administrazioarekiko Auzien Epaitegian. (OJO EL ORGANO ES EL TRIBUNAL SUPERIOR DE JUSTICIA).

BOSGARREN GAIA

EUSKALTELEKIN HITZARMENA ONARTZEA, IRURAKO BIZITOKI-GUNEAN BERE ZERBITZUAK EZARTZEKO, HALA BADAGOKIO.

Euskaltel S.A.-k Hitzarmen proposamena aurkeztu du, bere telekomunikabide-azpiegitura Irurako herrigunean ezartzeko eta Udalaren titulartasuneko eta hirigintza-garapen berrietako azpiegiturak erabil ahal izateko.

Hori dela eta, Udalbatzak aho batez honako hau onartu du:

Lehen.- Hitzarmen hori onartzea, eta alkate-lehendakariari baimena ematea dokumentua Udalaren izenean eta ordez sina dezan.

Bigarrena.- Espedientea jendaurrean jartzea 20 egun baliodunetz,

Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean iragarkia argitaratuta, gainerako telekomunikabide-operadoreek egoki deritzotena alega dezaten.

Hirugarrena.- Alegaziorik aurkezten bada, Udalbatzan ebatziko da, eta, bestela, behin betiko onartzen dela iritziko zaio.

Erabaki hau behin betikoa da eta administrazioko bidea agortzen du. Beraren aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsoa ipini daiteke Donostiako Administrazioarekiko Auzien Epaitegian.

SEIGARREN GAIA

IRURAKO ETA HERNIALDEKO IDAZKARITZAKO LANPOSTUAREN ELKARTEA DESEGIN DELA JAKINARAZTEA.

Udalari jakinarazten zaio 2010eko uztailaren 23ko Ebazpenaren bidez desegin dela Irurako eta Hernialdeko Udalek osatutako elkartearen bien artean idazkari bat izateko, eta baita ere Irurako Udalak hirugarren mailako sailkapena hartzen duela.

Era berean, Gipuzkoako Foru Aldundiko Lehendakaritza Sailaren foru-sailburuak 2010eko irailaren 24an igorritako aginduaren bidez, kargua behin betiko esleitu zaio Miguel Arrizabalaga Brusini, ordura arte jardunean zegoen Estatuko gaikuntza duen funtzionarioa.

ZAZPIGARREN GAIA

IRURAKO BAKE PAILEAREN TITULARRA ETA ORDEZKARIAREN IZENDAPENA, HALA BADAGOKIO.

Puntu hau aztertzeke geratu da, eta bake-epaile kargurako hautagaiei curriculum vitae txiki bat eskatzea erabaki da.

ZORTZIGARREN GAIA

IRURAKO TRINKETEA ERABERRITZEKO EGITASMOA AZALTZEA ETA EZTABAIDATZEA.

Alkatetzak Trinketa Eraberritu eta Birgaitzeko Proiektuaren berri eman du. Horren bidez, alboko eraikina eraitsiko litzateke eta tamaina handiagoa eta hiru solairu dituen beste bat eraiki. Horretaz gain, egungo instalazioak eta zerbitzuak erabat berrituko litzateke (dutexak, igogailua, taberna, areto berriak...). Proiektuak 650.118,24 euro kostatuko ditu, eta fasetan garatuko da.

Era berean, Alkatetzak adierazi du Gipuzkoako Foru Aldundiko Kirol zuzendariak konpromisoa hartu duela 2010 eta 2011 urteetarako diru-laguntza emateko, eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren 2011ko Aurrekontuan laguntza hori onartzearen zain daudela.

Aztertzeko beste gairik ez dagoenez, 21:45an eman da amaitutzat bilera. Bertan esandako guztia aktan jaso dut, eta idazkari nauzuen honek dena EGIAZTATZEN dut.

ALKATEA

IDAZKARIA